



A.4.1. OSPITALEA

A.4.1. OSPITALEA

Azalera: 21.472 m²

I. Ordenazio-irizpideak eta Helburuak

Eremu honetan sartzen da Pentsionisten Egoitza, Legarreko Frontoia eta San Andres Egoitza ekipamenduak kokatzen diren aldea, eta iparraldera sahiesbidearen hirugarren faseko gurutzagunearekin egiten du muga.

Zona honetan ez da proposamen berririk egiten eta lehendik dauden bizitegi eraikinak finkatzen dira.

II. Hirigintza-Erregimen Orokorra

Kalifikazio Globala:

O-CG-01 "Kalifikazio Globala", Ordenazioko (I. Liburukia) V. Planoaren araberakoa.

Eraikuntzaren Baldintza Partikularrak:

Egungo eraikinak, ordezerakoan, O-AL-AO-1 eta O-AL-AO-2C "Lerrokadurak eta Sestrak. Ordenantza Eremuak", XII. planoetan zehazturiko lerrokadurei eta sestrei egokitu beharko dira, eta 2/2006 ELH Legearen xedapenak kontuan hartuta Hirigintza Arau Orokorrei egokitu.

Erabilera Baldintza Partikularrak:

Eremuaren erabilera nagusia, Ekipamendu erabilera da: Hirigintza Arauen agirian 8.3.04. Artikulua.- Ekipamendu erabilera (3. erabilera).

III. Ordenazio Xehatua

Eremu honetan xehatutako eremu-banaketa baldintzak, O-CP-01 "Kalifikazio Xehatua", Ordenazioko (I. Liburukia) VII. Planoan ezarritakoari egokitu beharko dira.